



AIARALDEA.EUS

### Amurrion eta Laudion, danbor hotsak ozen

Aurten ere Laudioko Rakatapla elkarteak San Prudentzioren omenezko ekitaldiak antolatzen ari da. Apirilaren 27an, San Prudentzio bezperan, danborrada tradizionala Laudioko kaleetan zehar ibiliko da 22:00etan Aldai plazatik abiatuta. 00:00etan Herriko Plazara iritsi eta bertan San Prudentzioren omenezko erretreta abestuz ikurrina altxatuko dute. Herriko txikiek ere euren danborrada izango dute. Ekitaldia 17:30ean hasiko da Herriko Plazan. San Prudentzioren ospakizunaren baitan, Amurrion ere danborrada egingen dute, hilaren 27an, 19:30ean, Frontoi kaletik San Anton plazara. Gainera, urtero bezala, aurten ere barraskilo jana antolatu dute indarrak berreskuratzeke. ■■■



OIONGO UDALA

### Danborradak 33 urte beteko ditu Oionen

Azken xehetasunak ematen ari dira Oionen San Prudentzioren ospakizunari. Urtero lez, hilaren 27an danborrada egingo dute. 19:00etatik aurrera, elkarren segidako hiru erretreta joko dituzte, eta 19:30ean, parte hartzaile guztiak Oiongo erdigunean bilduko dira danborrada tradizionala egiteko. Danborradak XXXIII. edizioa beteko du aurten, eta, beti bezala, San Bizente ikastolako Gartxo IGEak antolatu du. Danbor hotsak bukatutakoan, Diamante taldeak girotuko duen dastaketa antolatu du Oiongo kirol elkarteak. Gaeuan, zezensuzkoa, su artifizialak eta berbena izango dira. Apirilaren 28an, berriz, barraskilo jana izango da, 14:00etan, eta arratsaldean herri kirolak, musika eta zezensuzkoa. ■■■



PHOT.OK

### Lehen erretreta Dulantzina joko dute

Arabako danborradarik goiztiarrena Dulantzina egiten dute. Aurten, apirilaren 26an, Arabako patrioiaren omenezko danborrada itzuliko da herrira. 12:00etan, Herriko Plazan erretreta egingo dute, eta ondoren hasiko da kalejira. Bertan, danborrariak, majorette eta kantinera talde batek lagunduta, jaiari hasiera emango diote, danborrak herriko kale nagusietan zehar burrunbatuz. Arratsaldean, desfilea 18:00etan hasi eta 20:00ak arte luzatuko da, Kilkir txarangaren laguntzarekin. San Prudentzio jaiarekin batera danborrada bat ospatzearen ideia Okeluko elkarte gastronomikoan sortu zen 2008an, eta gaur egun ehun lagunek baino gehiagok parte hartzen dute danborradan. ■■■